


ZER
ALDIZKARIA

405n. zenbakia
2014 BAGILA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

GUZURRETIK EGIRA

Abuztuko 15an beteko dira
75 urte, erlijio-politika arloan
Begoñako Amaren bitxi lapurtuen
irteerak burutu zan asto-jokoa.



Erlojua (Arene)

2013ko SARI LEIAKETA. Ienengo saria



Erlojua (Arene)

IZADIA ZAINDU XVI.a



IZADIA ZAINDU XVI.

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2014-2015 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 47. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

47. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

Ez zan izan lapurketarik, ezta gitxiagorik be. Egia esanaz, Begoña Parrokiako arduradun Fortunato Unzueta eta Euskal Jaurlaritzako diruzaintzale Eliodoro de la Torre arteko ekintza arriskutsua izan zan, bitxiak gordetzeko Toulouse (Frantzia) Banketxean.

Jasotakoaren benetako istoria idazteko, eskuratu al izan dot batez be Fortunato Unzuetak St. Jean de Pied de Portutik (Don Ibane Garazi) Mateo Mugikari idatzitakoa, 1937/Irailla/11.an.

Unzueta Donibanen egoan, Frantzian 500euskal neska mutiko atzerriratuen kolonian erlijioso arduradun legez.


D. Mateo Mugikari, jagokonez, frankotar agintariak bastarturik, Bituriko Gontzaigo itxiazota, atzerrian bizi zan Cambo-les-Bains, Lapurdiko errian,

GUZURRETIK EGIRA.

Abuztuko 15an beteko dira 75 urte, erlijio-politika arloan Begoñako Amaren bitxi lapurtuen itzulketa burutu zan asto-jokoa.

Gertatukoaren benetako istoria.

1936ko uztailaren 18 an, militar oldartza asi barritan, Begoñako parrokoa zan Bernardo Astigarraga bizi bizian urduritzen asi zan Ama Birjiñaren bitxien goraberagaitik. Burutik ezin kendu bitxiak galduko zirala, Bizkaiko Bankuetxeko legezko liburuetan jarrita egozanen urratsak guztiz kentzen ez baziran.



Bizkaiko Bankuetxeko Onularitzak ezin eutson onartu eskari au Eliodoro de la Torre, Euzkadi Jaurlaritzako Diruzaintzallearen baimen berezerik bage. Beronegana jo eben. Eta Diruzaintzalleak Bizkaiko Bankuetxeari luzatu eutsozan eskatutako salbuespen guztiak, bitxiak eta altxorra gordetzeko bear ziran baldintza guztiakin eta bere buruan jaso ebazan etor zitekezan erantzukizunak. Bakarrik erabateko ixiltasuna eskatu eban.

Bernardo Arrizabalaga, parrokoa lasaitu zan. Fortunato Unzuetak izandako alkarrizketetan, bein baño geiagotan goratu eban Eliodoro de la Torre Jaunaren benetako katolikotasuna, ontasuna, eta Begoñako Amaganako zaletasun andia.

Alan da be, jakinez Bilbo-Uribarriko Komunisten listadoan bere izena agertuten zala, larritu zan eta, alde egiñik, Etxanoko "Iparragirre" baserrian babestu zan, eta geroago Amorebietako dorrean. Parrokoaren aldegitaroan Unzueta, Begoñako Parrokiako arduradun legez egon zan.

Bien bitartean militarren erasoasi zan Bizkaian. Parrokoa barriro ikaratu zan. Untzuetak sarritan ikusten eban bere Parrokoa. Etxanon eta

Amorebietan egin eutsozan bisitaldi bitan, esan eutson Parrokoak: Aizu: ezin dot lorik egin, bitxi goraberagaitik. Ondo dakizu konfiantza osoa dodala zugan eta zure zurtasunean. Eizuz alegiñek, seguru egon daitezkan; baño ez eida zu aitatu ezetan be, bateon bat kexketan, edo ta Ama Birjiñaren altxorraren eske baletorkit, egiz baieztatu dagidanez, eztakidela non dagozanik.

Alan berba egiten eban Bernardo de Astigarraga, Begoñako Parrokoak, bere ustez edozein bonbardeketan edo ganorabako askoren eskue tan galdu eitezela koan.

Fortunato Jauna Finantzieta Onulariaren laguntza billa asten da.

Alantxik ba, Fortunato Unzuetak eta Eliodoro de la Torre alkartzen dira Begoñako Amaren bitxiak gordetzeko modu seguru bat aurkitzeko.

Eliodorenzako, Fortunatori argi ta garbi autortu eutsonez, garrantzitsuena Ama Birjiñaren Irudia zan, eta Irudiaren arabera, ezereztzat artu eikezan gañerakoak. Eta zerbait balio bae-



LA GACETA DEL NORTE

Hoy llega a Bilbao la esposa del Generalísimo

Las alhajas de la Virgen de Begoña

Fué un bilbaino quien las descubrió en Francia y las rescató

Por A. López Becerra

OFRENDA...



La solitaria Santa Eulalia, para una ofrenda... (The text continues with a detailed account of the discovery and rescue of the Virgin of Begoña's jewelry by a Bilbao resident in France.)

ben bitxiak, Birjiñaren zaleek eskeñitakoak ziralako balio eben. Azkenez erabagi eben Ama Birjiñaren jatorrizko Irudia jagon okulu-izkutokian gordetzea ta Amaren bitxiak Toulouseko Courtoise Banketxera eroatea ta Bizkaiko Banketxean sartutea.

Birjiñaren jatorrizko irudia aitatu-ten dodanean eta gordeta egon zala bere eskutulekuan, auxe gure dot esan: gudaldi onetan zear, segurtasunagaitik, Basilikako erretaulan agertzen zan irudiaren kopia bat zala, eta ez jatorrizko irudia. Jatorrizkoa zana, okulu baten gordeta egoan, Basilikako dorreko gela batean, kanpantegiko azpikaldean. Bunker antzekoa zan, zementozko ormakaz armatua.

Ama Birjiñaren irudi ta eskutuleku onetan gordeta egozan gañerako kultugaiak, ez eben euki iñolako arriskurik. Oso osorik aurkitu ebezan gudaldia amaitu zanean.

Ama Birjiñaren bitxien zerrenda.

Ama Birjiñaren bitxiak Toulou-sera zelan eroan leikezan jakiteko, gau batez onexek batu ziran Aziendako despatxu ofizialean: Eliodoro de la Torre, bere idazkari Luzio Arechabaleta, Bizkaia Bankuetxeko N. Hernandez kurtxazaña ta Fortunato Unzueta.

Ardurarik andienaz Bankutik ekarritako bitxien zerrenda osatu zan. Eliodorok eskatu eutsen Fortunatori aukeratu egizala pertsona bi, sozial ta moralki erantzukizun betekoak, Fortunatogaz batera onartuak, bearrezko zanean Toulousen sartuko ziran bitxiak barriro eskuratzeko. Eta izentatu ebazan David Ilarduya ta Jose de Ochoa, Bilboko Udaletxeko kontzejala.

Danen artean izenpetutako Aktan, pertsona oneiri bakarrik luzatu jakien gordetakoa eskuratzeko eskubidea. Arrezkerotzik

Fortunato Unzuetak Eliodoro-ren eskuetan isten dauz Basilikako arduradun aldetik daukozan eskubideak, olan Aolkulariak bete egizan zeatz eta arduratsu, aktan izenpetutako erabagiak. Unzueta ia ezta agertzen geiago.

Toulouseko Courtois Banketxera bitxiak eroatea.

Eliodorok erabat sinisten eban Jose Maria Yanguas pilotoaren trebetasunean ta leialtasunean. Eusko Jaurlaritzaren konfiantzakoa zan. Bere bitartez baliatzen zan, atzerrira bialdu bear ziran garrantzizko agiri ta ixillekoak burutzeko.

Alantxe Eliodorok aukeratu eban Jose Maria Yanguas pilotoa, egazkiñez eroan egizan Bilbotik Toulouserano, Begoñako Amaren altxorra ta Bilboko Emakume Abertzaleen bixitegia.

Toulesera eldu zan Yanguas elizatiko ta ostantxeko ondasun biekaz, ta gordetzeko orduan legezeko arazo batzuk izanez Eliodoro jakitun ipiñi eban. Onek agindu eutson berbera bertan egon arte, itxi egiala depositoa Bankuetxean bere izenean, alik eta agindu barriak artu arte.

Aurrera joiazan Bizkaian gudakiko ekintzak. Eliodoro joan bear izan eban zoli, Balentzia, Paris eta beste leku batzuetara. Egun batzuk igaro ziran Toulousen agertu barik, eta bitxien sartzea lege baldintzatu barik.

Yanguasen saldukeria.

Egun batzuk geroago Yanguasek atondu eban itzultzeko eguna. Egun oneitan Frantzian egoan Euskal Jaurlaritzako Osasun aolkulari Alfredo Espinosa. Amaitu ebanen Frantzian babestuen koloniak ezartzea Yanguasen egazaldia aukeratu eban Bilbora joateko Eusko Jaurlaritzako batzarkideakaz alkartzeko. Barruak eskatuten eutson Jaurlaritzako kideakaz alkartu ta etorkizun bardinean abiatzea. Biderako lagun batzuen artean Jose Agirre militar Kapitana egoan.

Egazkiña ekaineko 21 asteleneko 20,17an Toulousen aideratu zan, baña ez zan eldu bere elmugara Zarauzko ondartzan lurreratu zalako 21,30 orduan. Yanguasen esanetan lurreratze onen arrazoia matxura bat izan ei izan. Baña izatez, benetan, alde aurretik ondo antolatutako saldukeria izan zan.

Datu batzuk dagoz saldukeria salatzen dabenak:

- Egazontzia lurreratzerako zan lekutik bañueta-ko txabolak kendu ziran ta arritutako bañuzaleei Franko etorrela erantzun jakien.
- Zarauzko alkateari agindu jakon itxasotik ikusten ziran argi guztiak itzalita eukitea.
- Cervera itsazontzi andia ta ostantxeko frakotar ontziak agindua artu eben ez egiteko tirorik egazkiñari. (Sancho el Sabio:Separata).

Julian Troncoso, Irungo mugako komandanteak, egazkiñeko bidelariak atzilotu ostean, eroan ebazan Biturira Division de Navarraren Nausiengana.

Eriotzarako epaia artu eben danak, barkamenaz ordezkatzuz, Alfredo Espinosa eta Jose Agirre izan ezik. 1937-ekaineko 26 fusilatuak izan ziran.

Joaquin Goyoagak Ama Birjiñaren eta Emakumeen bitxiak eskuratzen ditu.

Yanguas pilotoa ez eben eroan Biturira. Zarautzen geratu zan ixilleko lanak egin bear ebazalakotan Generalisimoaren aginduz, ta ostean askaturik itxi eben.

Beingoan ikustatu zan Yanguas, Bilbotar Joaquin Goyoagaz, jakinarazoz non egozan Ama Birjiñaren bitxiak eta Bilboko Emakume Abertzaleenak.

Yanguasek, Goyoaga lagun artuz, joan-etorri arin-arin bat egin eban Toulousera, eskuratzeko Ama Birjiñaren eta Emakume Abertzalen bitxiak kutxa bitan gordetakoak Yanguasek berak Azien-dako aolkularitzaren agindupean.

Bitxiak eskuratu ostean, Irungo Aduanatik igarotzean, 1937ko ekaineko 23n, Julian Troncoso, Murgaren serbitzuko Nagusiaren esku iminten dabez, zaindu ta emoteko Davila Generalari.

Persona bi oneik militar zainpean itxi ba ebezan Ama Birjiñaren bitxiak non galdu ziran Bilbaoko Emakume Abertzaleen bitxiak, garai aretan milloi bat pesetaren balioagaz?

Alan dala, Joakin Goyoagak jakitun ipiñi ebazan Bilbok erri ta eleizako agintariak bitxien aurkikuntzaz.

Durangoko ta Gernikako bonbardekaten errudunak gorri-separatistak zirala baiestatuten ebenai bost axola jakien esatea Begoñako Amaren bitxien lapurketa Fortunato de Unzueta ta Eliodoro de la Torrena izan zala. Egin be, alantxe egin eben.

Istoriaren itzelezko itxuragabekeria.

Joaquin Goyoaga agertu zan “Frantzian bitxiak aurkitu ebazan bilbotarra eta bere zuertasun, buru argi ta joerari esker, eskuratu al ebazala Begoñako Birjiña bere Jabe, Usandra, ta Espainiarentzat”. Ori dala ta bearrezkoa zan ordañezko ospakizun andi bat Begoñako Birjiñari rojo-saparartista aroan lapurtutako bitxiak berreskuratzegaitik bai ta Birjiñaren eta Jesus Umearen buruetan koroak berjartzegaitik. Au guzti au egiteko Carmen Polo de Franco Generalisimoren emaztea ta Mons.Antoniuti Aita Santuaren Nuntzioa etorriko ziran Koroak iminteko Birjiñaren eta Jesus Umearen buruetan. (Gaceta del Norte 15 ta 17,1937ko abustuan).

Zenbai gogoeta orreri buruz.

1937ko abustuko 3an Bilbaoko Udaletxeak zabal-dutako mezuan auxe diño: Birjiñaren altxorra Fran-tziara eroan zan ziur aski gaiztakeriz ondatzearren pertsonaje gaizto batzuen probetxurako.

Baña Jaunari eskerrak gauzak ostantxeko bidetik joan dira.

Zoritxarrez, ez zan izan Jaunaren babesagaz. Ez, saldukeri, guzurrak, laidoak eta mendeku egarriak bultzatu eben orrelango politikazko maskarada ta ikuzkizun donaustea egitera 1937 ko Abustuaren 15an. Donaustea, sakrilegoa diñot, Bilboko Artzi-preste Domingo Abonak antolatu ebalako ikuski-zun au, beste abade jarraitzaleakaz, zikinduz biz-kaitarren benetako erlijiotar sentipenak saldukeri ta kalumnia larrienetakoaren bidez.

Beste aldetik, itzelezko guzurrezko istoriaren au-rean non egoan Bernardo Arriaga mundu guztiari autortuteko bera izan zala, parroko lez, Fortunato Unzuetari eskatu eutsona Birjiñaren bitxiak on-doen eritxon lekuan gordeteko, idazki onen asieran agertzen dan lez?

“Politika-erligioso komedia onen egun gitxi os-tean, agustuaren 28an. Mons. Antoniutti Doniba-ne Garaziko, Pied de Portera joan zan euskal nes-ke mutikoen kolonia ikustatzera. Bertan Fortunato Unzueta egoan erlijio arduraduna legez. Eta Mons. Antoniutti jakitun ipiñi eban bere aurka ta Eliodo-ro de la Torren kontra esandako guzurreta. Anto-niutti erabat ixildu zan eta sekulan be ez ebazan sa-latu, ez eta gogor egin be. (La pólvora y el incienso: Hilai Raguer)

Amaituko dot Fortunato Unzuetak bere Gotzai Mateo Mugikari esan eutsozan berbakaz: Eliodo-ro de la Torre ta nik egin gendun krimen bakarra, gaizkin bakarra, gure aldetik aleginik andiena izan zan Begoñako Amaren bitxiak eta koroía gordetea, benetako maitasunez maite dogulako gure Begoña-ko Ama.”

Irurogeta amabost urte asko da, baño azkenean egiak garaitu dau ta zuzendu Begoñako Amari os-tutako bitxien bereskuratzeari buruz asmatutako erlijio-politikazko maskaradea.

Jesus-Fco.de Garitaonandia ta Sarduy
Begoña Santutegiko Erretorea.
(MUNETXEK egokitua)





Erlojua (Arene)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2013ko sari leiaketa. Lenengo saria

Ariñeketan doa Josefin tren geltokirantza. Senarra meniskotik operatu eben atzo eta gaua ospitalean pasa dau alaba gazteenagaz. Orain alabea etxera etorteko Josefin doa senarragaz egotera. Iñaki, senarra, berbatsua ez danez, Josefiñek ez aspertzeko puntua daroa bertan egiteko. Alaba nagusienak udebarrirako umetxua dakar eta Josefin, bere lenengo illobatxuarentzat, jo ta ke dabil jersetxuak, mantoiak eta abar egiten.

Goizetik eldu da eta trena oraindiño erdi utsik dago. Leio ondoan jesarri da. Asi da jendea etortzen. Ia-ia bagoia beterik dago. Ateak zarratzera joiazala, mutil bat sartu da Josefin dagoan bagoira eta bere ondoan jesarri da. Itxura txarreko mutilla da, punki antzekoa: kresta andi bat daroa -Josefiñek a tente jartzea erreza ezin izan bear dala pentsatzen dago-, belarri banatan iru edo lau belarriko eta, ori gitxi dala, sudurrean eta betule baten beste bana. Goitik bera baltzik jantzita dago. Eskuetan larruzko txamarra zantar bat ikusten jako. Oñetakoak militarrek erabiltzen dabezen lakoak. Josefiñek, bere barrurako diño, ez ete dagoan beste lekurik mutil a jesarteko.

Trena martxan asi da eta Josefin ez doa lasai. Itxurabako mutil a an egoteak urduri jarri dau. Leiotik kanpora baño geiago dabil bere eskumarantz begira, mutilla dagoan lekura, ori bai, disimuloz. Mutilla apur bat mugitzen danerako, an dago Josefin erne. Puntua egiteko tresnen boltsatxoa ere, badaezpada, jesarleku azpian gorde dau. Mutillak ankak luzatu dauzenerako, andreak bere eskuko boltsea bezapean jarri dau. Ez da batere fidatzen.


Ordu erdiko estutasuna daroa aldean Josefiñek tunel batetik pasatzerakoan. Treneko argiak ez dira biztu eta illunetan doa bagoia.


-Asko da, ba! -diño emakumeak- Au da ba kasualidadea!

Tunela luze be luze egiten dauko. Momentu baten, trenak triki-traka gogor bat egiten davan baten, mutilla Josefiñen gainera jausi da.

-Perdone, señora -diño mutillak, baña emakumeak ezer erantzun barik, sakatu egiten deutso bere lekuan ondo jarri daiten derrigortuz.

Leiotik argi pizka bat ikusterakoan biotza be zabaldu egiten jako. Sasoia izan da tuneletik urteterako -Josefiñek bere artean pentsatzen dau.





Artega dago Josefin. Leiotik begira dago, baña ez dau ezer ikusten. Mutilla kontrolatzera dago geiago. Ospitalera eltzeko askorik ez dala faltako pentsatzen dau, ordu laurden bat edo, asko botata. Amaiak edo izango dira bere barrurako esan eta erlojua begira doa Josefin.

-Erlojua! Non dago nire erlojua! -Ez eskumako ez ezkerreko ezkumuturran ez daroa bere urrezko erlojua!

-Iñakik zidarrezko ezteguak egin genduzan egunean oparitutako erlojua! -zoratu bearrean dago emakumea.

Mutilla isil-isilik dago berari begira. Orduan, Josefiñek, bat-batean, jesarleku azpian dagoan boltsatik puntua egiteko orrotz luzea atara eta saietsetan mutillari sartuz diñotso:

-Dame el reloj o te clavo esto hasta dentro.

- Señora, ¿que me está diciendo?

- Que me des el reloj o te meto esto hasta dentro -Josefiñek gero eta indar geiagoz orratza sartuz.

- Señora, sabe lo que le digo? Que esta usted como una cabra. Tome el reloj y déjeme en paz, delincuente!

Orduan mutillak ezkuturretik erlojua kendu eta Josefiñeri emon deuto. Ondoren, bere jesarlekutik altxatu eta abiada bizian beste bagoi batera doa.

- Delincuente, delincuente diñost gañera berak -Josefiñek minduta. Berak neuri lapurtu eta gañera ori entzun bear.

Eldu da eldu Josefin. Tren geltokitik ospitalerako bidean buruari bueltak eta bueltak emoten dabil. Ziur dago trenean bere gañera etorri jakonean orduan kendu deuto bere urrezko erlojua. Mutillak emondakoa ez da urrezkoa. Ezta gitxiagorik be ez.

- Erloju digital iñuzente bat baño ez bada! -bere barrurako Josefiñek.- Nirea ezin izan dot berreskuratu, baña ezer barik gelditzekotan obeto berau. Gure Iñakiri kontatzen deuto sadanean gertatutakoa! Aren haserrea!

Eldu da ospitalera. 235 zenbakia dakar Iñaki dagoan gelako atean. Sartu da barrura. An dago Iñaki oean etzunda eta Izaskun, alabea, bere ondoan.

- Egunon! Zelan igaro dozue gaua? -Josefiñek bere larritasuna agertu ez naian.

- Pentsa doguna baño obeto -Izaskunek.


- Goizetik etorri zara ba! -Iñakik.

- Goizetik? Esan neutsuen hamar eta erdietako trena artuko nebala. Gañera, ez dakizue zer gertatu jatan trenean. Benetan hau kontu bearrekoa da.

- Ama, parkatu baña ni oin prisaz nabil eta ez daukat berbetan egoteko astirik. A! aztu orduko, ama, -diñotso Izaskunek-eutzi erlojua. Atzo, eskuak garbitzera joan ziñenean, komunean, konketa gañean, itzi zenduan. Kontuz ibilli bear zara, emendik jende asko dabil eta.



EGALUZEA



Iparraldean arrapatutako Egaluzeak, ta Egoaldean zenduak,

6.400 Km ibilli ebazan. (*Katsuwonus pelamis*. Ozeanikiko **EGALUZEA**)

Berez 110 zm luzeran ta 34,5 kg pisuan, lortu eikeazanak.

Benezuelan **2013** arrapatuak, **21,8 kg** eukezan eta **100 zm** luzeran.

Ondarrabin, **2006ko** len arrapatu aldian, urte beteko **2,5 kg** ta **50 zm** luzerakoa zan.

EGALUZE EUKALDUN BATEN, ERREKORRA.


Benezuelan arrapatu eben. Egaluzetako bat, Ondarrabitik urtenda 6.370 kto bidea sei urte barruan egin ostean.

Munduko **egaluzerik bizkorrena euskalduna** dogu. Edo ta izan zan, onezkero mokadu ederretan janda dagoelako. Lenengoz arrapatu eben Ondarrabiko itsaz bazterrean metro erdi luzerakoa ta 2,50 kgkoa zan. Markatu ostean itsasoratu eben barriro. Egun gitxi dira Benezuelako uretan barriro arrapatu ebela, andiago eginda 21,8 kg. ta metro bateko luzeragaz. Onak izanik luzerak, obeak lortu ebazan errekor arloan.

Eta alan, bide luze artezean lortutako distantziagaitik, Guines liburuan agertuteko gai izatea lortuaz. Eusko ondartzatetik 6.370 km. Egindakoa, au da, 254.800 ugerlekuko luzaketak. Ez da ibilbide makala, naiz eta ez izan apamenik Ondarrabiko kaleizenetan.

Zein-zelangoa zala eagututeko Fernando Zapirain arrantzaleak egoan ipini eutson txartelak diñosku. arrantzale orrek “Kutxi Kutxi” ontziegaz Azti-Teknalia erakundean leiatu ebanean gertatu zala.

¿Zenbat millaka metro egin ote ebazan bitarte onetan?
Jakin eziña da.



Dakiguna da iparraldeko egaluze zuriak urtero alde egite dauela Bizkaiko Golkotik Sargazos itsasoraño, udabarriko 25 graduko urepeletan errutateko.

Ondarrabikoak bertako angiru taldetik alde eginez Benezuelako uretara abiatu ta "Black Marlin"eko mariñelak arrapatua izan zan. Bere egalean arkitutako txartela Benezuelako Ozeanografikoen eskuetan ipini az gerta ori Azti-Teknaliari jakinazo eutsoen.


Aurreneko errekorra Massachusseteko (EE.UU) arrantzale batek 2007 urtean lortu eban 6.170 km. osatutako egaluze bat arrapatu ebanean.

Esan bear egaluzeak ez dirala abere bidelari obenak. Markarik bikañena txori batek, **Artiko txarrran** deritxonak, urtean birriten egiten dauz, joan etorriko egakadan Artikotik Antartikora dagozan 35.000 kmak.

Itsasoan urregorritzko ikurra **gris baleak** dauka, urtero 16.800 km egiten dauzalako.

Egaluzeen arloan eskaldun ale batek daroa txapela.

MUNETXEK
BILBO. 2013.11.13




Esakerak

- Leengo zaarren esakerak, guztiak jazoerak.
- Orrek lengo lepotik dauko burua.
- Leenik jan, gero lan.
- Norberak ez dau bere makarrik ikusten.
- Zu aundi ta ni aundi, nork guri aparria ipiñi?.
- Zure etsairik aundiena, zeure burua lenena.
- Ikasi bear badok, zurra izan bearko dok.
- Itxaso guztiak igaro eta bazterrean ito.
- Zalditik astora eta astotik lurrera.
- Ez gaitu oitura batek egiten Jaunaren gogoko.
- Izango dau berea biarko egunak.
- Ez edan errekan, al badozu iturrian.
- Ez dau diruak egiten gizona.
- Gaiztoak berarekin gaiztakeria.
- Geiago eukiago ta naiago.
- Geu garan artean gure mundua.
- Jango badok bearra egin bearko dok.
- Itsuak ikusgura, errenak ibilgura, gorrak entzungura.
- Itzak ederrago egiñak baño.
- Lur gitxi aldatz barik.
- Luzaro nai badozu bizi, gaztarotik zartzen ikasi.
- Nagiak erre egin ei eban erria.



- Zelako egurra, alako sua.
- Neu nagusi eta musturrak ausi.
- Gizon buru apala igandik urrun doala.
- Gizonak gizona nekez ezautzen oi dau.
- Lan egiteko mutiko, jateko gizongo.
- Aldatz goreak badau aldatz berea.
- Amar urte ez dira bear amar gauza ikasteko.
- Arpegiak arpegia austen dau.
- Asko daki zaarrak, erakutsi bearrak.
- Askoren miña, zoroen atsegiña.
- Arri batek berak ez dau orma egiten.
- Gaiñean eder, barruan lander.
- Emona bat, artua bi, emonak galdua dirudi.
- Maite zaitut, baña azaletik: ikusi nai zaitut, baña urrundik.
- Mendiak mendiaren bearrik ez: baña gizonak gizonaren bai.
- Lotsa bagentzat mundua; irabazten dabenentzat zerua.
- Jokoak adarrak makur.
- Guztia gura izatea, guztia galdutea.
- Gogoan dan tokian aldaparik ez.
- Gitxiegi ta larregia, beti kaltegarria.
- Etxeko sua, etxeko autsaz estali bear da.

Uriguen'tar Zenon C.P



IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI~IZENAK MUNDUAN ETA EUSKAL EDESTIA XVI.



1540-1550ean Erdi Mendeko urtetik oraingo aldira, edo ta Berrizte Alditik⁽¹⁾ Frantzian 1.789an egin zan iraultetatik gaur arte, agertu ziran aurrerakuntzakaz⁽²⁾, lengo erregetzaren orokorrezko agintea indartu barik eta eurak menderatuta, Nizeatik merkantilismoagaz batera etorten zan katolikotasunaren batzangotasuna joan ziran sendotzen, eta nai ta Europaren berezko errietan eta Euskalerrrian Iparraldeko iru lurralde ta egoaldean, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian gure askatasunezko eskubideak euki, tresneri barri orreik indarrezko aukeran emoten eutsoezan neurrian, euren batzangotasunaren norkerizko asmakuntzak asi ziran gogortzen.

Zergaitik baiña menperatu ote eban, errege irudiak eukan antolatzaillle edo artekarizko ardurea ?.

Asiriako Sargonidasen erregetzak eta erromatar kua-drataren kaisertzak sortu ziranetik, munduko gizar-tearen eskubideak zapaltzeko alegiñean etorri dira beti. Ezin izan dabe baiña, euren sasi ameskeriak garaitu.

Eta XVIIIn mendetik onantza European egon ziran erregetzazko leiñuak, erromatar kaisar sakratuzko katolikotasunaren eritzi maltzur orrekin ez zirala-ko gai izan munduko giza guztia eritzi baten inguruan batzangotu edo ta norkeriaren merkantillez-ko batzango zale barrien aberaspideak gura ebezan batzangotasunaren menpeko neurriak ezartzea, saio barri bat asi ziran antolatzen.

1789an Frantzian egin zan iraultza izan zan saio barri ori, laterritutako lurralde aundien jendeak pillotuta, erri ta izkuntz ezberdiñ orreik, ia aienatze-

(1) Berrizte Aldetik = desde la reforma. (2) Aurrerakuntzak = Irarkola, itsas orratza, lerrautza-(polvora), eta abar.



ko gai izaten ba ziran, erromatik asmatuta etorten zan latinezko katolikotasunaren mesede.

Frantziko lurraldearen erregeen artean, franko erregeak, lenengo leiñuetatik beti, goitik berako jaurkintzaren zaleak izan ziran lez, iraulketaren ondorio bidetik, Frantziko lurraldearen gizarte ezberdiñak batzangotu gura ebazan, eta ararte euki ebazan bereiztasunaren antolabidezko⁽¹⁾ erregeen ardurak baztartuta, berezko erriak daukiezan nortasunezko izkuntz eta lurrak guda bidez, latinezko katolikotasunaren asmakuntzagaz laterritu ziran, laterritutako lurralde guzti orreitan, danak frantzez biurtuta.

Eta katoliko batzangotasun ori mundu osorako asmatuta izan zan lez, Europa osoan eredu ori artuta, ararte egon ziran itzarmen bidetik antolaraziko erregeakaz lotuta, lurralde aundietan, guztiz Laterrituta geratu zan, aberri barriak katolikoaren izen gaiñerakoagaz.

Baiña, Erromatar katoliko kaizar sakratuan batzangotzeko asmatuta dagoan zorro orren bealdea, areik eta Mundu guzti onen nortasunezko giza barruan sartu arte josi barik euki ebelako, Napoleonek, menperatzailletasunezko atea zabalik aurkitu ebazan, eta bera be joan zan Europa ta ia mundu osoaren kaizar batzango ori lortzen. Borroka ori baiña, Jainko Legearen aurka dalako, betiko lez, azken gaiztotuta utsegille urten bear izan eban, ainbeste millakada erritar eta gudarien eriotzagaz.

Batzangotasunezko asmakizun orrek buru gogorra dauka, eta Hitlerrek be azkeneko saioa egin eban, 60milloi giza seme il da.

Noz arteraiño, burukaldi gogor⁽²⁾ orreik ?.

Gaur ez dira ausartzen beste bat egiten, Munduko bizitza berrogei bider aienatzeko atomozko lerkaiak dagozelako.

Eta errigizartearen nortasun ta nortasunezko izkuntzak gaur zer ?.

Sumerian asita, Sargonen menperatzailletasunetatik gaur arteko norkeriaren maltzurtasunak ikusita, kontuan artu bear doguna, Jaungoikuak Ludi au irasi ebanetik eta beren legeakaz oiñarritu, bereztu ebalu betirako izadi au, eta lege orreik ez dabe esaten, bereztasunarekin begirune aundia euki bear dogula baiño beste gauzarik. Gure arduraren kontu aundienetan artu bear doguna, or ulertzen diralako izadi onen gai gizaren eskubideak, edo ta Jainkoak danori agindutako zeregiña.

Norkeriaren asmakizunezkoak edesti guztian berezko legearen aurka, gizartearen ordezkartazko ardurakaz eten gabeko odoljarioaren sarraskia ekarri badabe, eta ipinitako legeak bete egin bear doguzelako daukagun baitaren aginduz, lege orreik daukien indarragaz beti aleginduko dira Jainkoak ipini ebazan bereztasuneko gai giza leku edo be-

(1)Antolabide=arbitraje (2)Burukaldi gogor = cabezonadas.

rezko legearen izatasunezko egokitasunera, eta guztiz egokituko ziran, orokorrezko bereztasuna, bakezko arnasaldi baten sartu balitz.

Orduan, bigarren munduko gudan zer gertatu zan ikusita, zergaitik barriro artu ez, bere ostean damu aundiz garraxika aldarrikatua: giza eta berezko erri ta erritar eskubidearen bideak artu bear doguzela ?.

Iñoz ez ote dogu igarriko Jaungoikuak ipinitako legeen aurka ezingo dogula ezer egin ?.

3. EUSKEREAK, ZELAKO IRUDIAGAZ ITXURATZEN DAUTSO EUSKALERRIARI ?.

Euskerea sortzezko izkuntza izan da, ez da gure gogotik oldoztu egiten dan izkuntz bat bezela.

Edo ta edestian ikusi dogun lez, menperatzailleak euren sasi garaipenak lortzeko, erri ezberdiñeko gizarateak menperatasunezko bearkuntzaren naastetatik urten leiken izkuntz baragarri baten antzera.

Ainbat latin kume sortu ziran Erromatarren norkerizko mende bidetik, berezko erriaren izatasunak beartasun bidetik naspillatuz⁽¹⁾, askatasunaren nortasunezko

bereiztasunean euki eben indarra ta bereztasunezko legeen zentzun aundiak kentzeko⁽²⁾ alegiñean,

Jainkoak berezko bizitz oneitara ordearen ardura-dunezko eragille lez bialdu ginduzanean, gai oneri arrigarritasun aundiz, adierazpen bat emoten asi bear izan gendun, goseak, gure sabel zorri onein larritasunezko doñuak, jaiotzak, eriotzak, gaxo aldi, zauri eta bizitzari erantzuna emoteko, eta bidezko arrazoiaren aurkako ekintzak ez ziralako egokienak, bai ta beste aukerarik ez gendulako euki, itaun bitartetik, baietza emon geuntson bizitz oni maitasunean egokituta.

Maitasuna, nori baiña ?:

Leen Jaungoikoari, laster konturatu giñelako bizitz au ez zala edozeiñek egindakoa.

Bigarren sendiari, lagun bearrean babeserako, guregandik ugaritzen giñelako.

Eta irugarren gai bizitzari, berak, gu izateko emoten dauskulako aukerea.

Maitasunezko egarri⁽³⁾ orren bidez, laster konturatu giñan, gauza guztien ekintzarako alegiñean, txar eta onezko aldiak eukezala, eta egiten genduzan gauza guztietan, begirunezko neurriakaz arduratu bear giñela, oker edo utsaldian jausi ez gindezan.



(1) Naspillatu= des-concertar. (2) Zentzun aundiak kentzeko = desconceptar. (3) Maitasunezko egarri = amar, querer, aspirar en definitiva.



Bai ta, ikasitakoak gure ezagueran era bidez⁽¹⁾ oituratzeko, antolakuntzazko beste uler leku barri bat zabaldu bear gendula, eta ortik asi bear izan gendun abots edo itz otsai itxurazko eran, amore emoten⁽²⁾.

Omo Sapiens, Afrikatik mugi aldian asi eta Europa, Asia ta Indiatik leen Euskerazko itz ta ekan-duaren oiturazko oiñarriekin zabaldu ziranean, zentzuzko oreka baten egokitu ziran, leiñuen bizitzazko antolakuntza, auzotasunezko lurraldeetan laterrituta.

Atlant Itsasotik Indiaraiño dauan bitarte aundia-
ren eragozpenagaitik, ez eutsen itzi izkuntz bateko
azturan egokitzea, eta or, leiñu bakotzak nai oiñarri
batekoak izan, sortarazi⁽³⁾ eben bardiñantzeko iz-
kuntzetan egokitudea.

EUSKEREAK ZELAKO IRUDIAGAZ ITXURATZEN DAU EUSKALERRIA?.

Euskaldunak, Jainkoa ta gaiari begira milla urte
askoren ikerpeneko atun bidean⁽⁴⁾, edo ta aztu-
ra bidetik⁽⁵⁾ ondo erindu eta biribildutako lanean,
itzaren esan zentzuak euren arremaneko kidesasu-

nean atondutako lekuetan ondo aokatuta eta bete
beteen egokituta geratu zitezen, euskerazko gazte-
lu ederrena eraiki eben gure arbasoak, eta beragaz
emon eutsoen bizitz oneri, adierazpen ederrena.

Ez ziran txantxetan ibili, laztasun⁽⁶⁾ eta zorrozta-
sun⁽⁷⁾ aundikoak izan ziralako.

Euskal itzazko esaerak, sorburuzko itzekin osotu-
tako almenean⁽⁸⁾ eginda dagozelako, irudiz, euren
esangurazko dan toki berberan kokatzen gaitu, ia
izkuntz gitxi baiño ez daukienak.

Gaztelerazko *playa* itza adibidez: zelango zen-
tzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?.

Ba ete dauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasu-
nagaz⁽⁹⁾ edo eta areatutako maskor ondarrarekin ?.

Gure arbasoek euren gai biziko izankizunakaz:
Euskalerriaren lur onetan egon eta sortzen diran
aize, zabaldegi, ur, itsaso ta mendiak daukiezan era
guztiko aldakuntzaren irudietan, zentzu aundie-
nean izendu ebazan alde batetik.

Bestetik: leiñu edo erri maillan begirun aundiz⁽¹⁰⁾
ta azturabideko itzekin geratu ziralako, senditasu-
naren bizitzazko arremanak, adierazpendu edo ta
euren argitasunean azalkatu ebazan.

(1) Esagueran erabidez = *metódica u ordenadamente*. (2) Amore-emoten = *amoldar*. (3) Sortarazi=crear. (4) Atun bidean=procedimiento
empírico. (5) Aztura bidetik=crecimiento del conocimiento. (6) Laztasun = *severidad*. (7) Zorroztasun = *austeridad*. (8) Osotutako al-me-
nean = *potencia, potestad*. (9) Leguntasunagaz = *lisura, tersura*. (10) Begirunezko lots aundiz = *con gran respeto y mucha delicadeza*.

Erri edo leiñu arteko maillan: Europako mende-bal onetan milla urte askotan iturburu bateko-tik ugaritu giñelako, sekula ez giñan joan bestea menperatzera edo ta daukana kentzera, eta begirun aundiaren ordezkio arremanakaz egiten ziralako gure artean eginbearrezko gauza guztiak, paregabeko demokrazia baten bizi ziran. Gure arteraño etorri jakuna, euskal baitazko lege zar oneikaz.

Eta bakoitzaren eginkizunetan ? : Jainkoari begira, egia gure bizitzako ardatz nagusi beti izan danagaz aurrera egin, gure Euskalerrri maite onek, beste ain-beste milla urte geiago iraun dagian.

Gure arbasoek, zentzunezko demokrazi egian bizitzeagaz, eta gaur arte ezer galdu gabe ekarri euskulako, daukaguzan askatasunezko demokraziaren egarriak bizi bizirik eta lengo lez daukaguz.

Eta Zentzunezko ekintza orreik izan ziran, baita orreik izan bear dira gaurko egunean eta beti, zentzun aundiko eginkizun orreik diralako euskalerrriari ainbesteko milla urte geroago bizi bizirik agertuazo egin dautsoenak, eta mirari aundi orreik egiten dabezanak.

EUSKEREAK:

Euskalerrriak daukan **nortasunezko** irudi ederragaz itxuratzen gaitu euskaldunai.

Maitetasun guztiegaz erkidetzeko egin gendun tresneri eder au, ez dalako gatz gabeko mezu gaillu uts bat, gure artu emonetan ibilteko bakarrik.

Bere barnean ikusten direnak.

Bere Euskal barnetik agertuta ikusten diran egipi-deak:

a).- Jainkoari begira, Beren legearekin euki gendun **oarmeneko samurtasuna**⁽¹⁾.

b).- Senitarte ta erri maillan **maitasunezko ulermena**.

d).- Gure baitaren bake edo orekagaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, zentzunezko ta zeaztasunezko begirune aundiegaz egin genduzelako, **ardura aundiko erantzunkidetz**a.

Euskal bizitzarako edo ta erriaren babeserako euskereak daukan indarragaz, berez agertzen jaku maitetasunezko gaitasuna⁽²⁾, bere barneak daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako, argitasuna emoten dauskuelako.

Gure arbasoek, arremanezko gauzak, zentzun aundiz eroanda egin ebelako, eta demokraziaren ulermen aundi batera elduta bizi ziralako, sendimendu ber-berori sartu eutsoen euskerari. Orregaitik euskerea ez da edozelako tresneri uts bat.

Bera da gure ama, euskal izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Etorkizunean be, euskerearen maitasunezko zentzutik artzen dogu nortasunezko izatasuna, mundu guztiko gizarteari erakutsiz, euskaldunen nortasunezko egi bidea.

Menperatzailleak, euren nagusitasuna erakusteko, bizitz au, xautzailletasunezko⁽³⁾ argi bideakaz ganoragabetu gura ba dabe, gu ez gara jausi bear txebera orreitan, bestela gudakin ez ebena lortu, gure iñozokeriakaz lortuko leukie.

Geiago bear ete dogu ?.

Ba kontuan euki, gure arbasoek euskereakin egin eben lez, guk elikatu bear doguzela zentzu aundiz nortasunezko demokrazia on batek bear dauazanak, euskal izatasunean iraun gura ba dogu.

Emen txantxaka ibilita, begitu zer esaten eban Orejatar Martzeliñok: ETA 'arren esanak edo eta mezuak sinismenean edo kontu aundian artzeko: orreik ez diralako gai, guzurra esateko be.

Eta Munduko gizarte ezagunek, irudi orregaz ikusten ote gaitue euskaldunak ?.

Lur eta gizarteko aunditasunean, erri txiker baten neurrian geratu gara, menperatzailletasunezko alegiñak edesti guztian, aundiak eta eten bakoak izan diralako, baiña gure nortasunezko demokraziak zabaltzen dauan dirdirazko argitasuna, munduko edozein lekutik ikusi leikena da.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.013'an Urtarrilla'ren 15éan

(1) Oarmeneko samurtasuna=atención, sentido de la observación. (2) Maitasunezko gaitasuna=buena dotes, talento. (3) Xautzailletasunezko = despilfarrador, aniquilador, expendedor, malgastador.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

	3				1			2
1	5		7					
			2	9		3		
3		1						6
	9	4				5	8	
	6					1		7
		7		5	4			
					2		9	8
2			3				5	

6	5	4	7	8	3	9	1	2
8	6	7	2	1	6	3	4	5
1	3	2	4	5	6	7	8	9
7	2	1	6	3	4	5	9	8
3	8	5	6	2	1	4	7	9
4	6	7	5	8	1	2	3	9
5	1	3	9	8	2	6	7	4
9	4	8	3	6	7	5	2	1
2	7	1	6	4	5	8	3	9

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian,errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzekodiru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

Aita San Antonio
Urkiolakoa, (Bis)
askoren biotzeko
santu debotua, ai, ai, ai!
Askoren biotzeko
santu debotua.

Askok egiten dio
San Antoniori, (Bis)
egun batean joan ta
bestean etorri, ai, ai, ai,
Egun batean joan ta
bestean etorri.

Urkiolako Santutegia